



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan, hiru baliabide mota erabiliko ditugu: baliabide fisikoa, finantza baliabidea eta baliabide intelektuala:

Baliabide fisikoei dagokionez, gure produktua sortzeko, hainbat material erabili beharko ditugu, hala nola, oihala, gurpilak, estruktura metalikoak etab, eta hauek sortzeko hainbat enprekin elkartuko gara, hauek erabiliko ez dituzten materialak guk erabili ahal izateko eta horrela material horiek merkeago lortu ahal izateko. Hauek guztiak batuz, produktuari forma emateko makinak beharko ditugu muntaia egiteko. Aliatuko garen enpresak hemengo hauek izango dira: Eroski, herriko burdindegia eta Ezpeleta.

Bestalde, finantza-baliabideei dagokionez, aurreko ereduetan aipatu dugun bezala, diru-laguntzetatik eta bezeroak emandako diru sarreretatik baliatuko da gure proiektua. Esaterako, herriko udaletxeak emango digun diru-laguntzetatik. Gutxi gorabehera, bertako udalak, horrelako proiektuak aurrera eramateko eskeini dituen diru-laguntzak 6000€takoak izango dela dakigu, beraz, gure diru laguntza antzerako zerbait izango litzake. Horretaz gain, gure bezeroek produktua erosiz, lortuko dugu irabazi ekonomiko zati handiena.

Azkenik, baliabide intelektuala, honek esan nahi duela teknologiarri dagokionez produktu berrienak edota produktua sortzeko makina berrienak eta berritzaileenak erabiliko ditugula. Horretaz gain, internet bidez gure produktua erosteko ahalmena emango dugu guk sortuaraziko dugun webgune bati esker.